

## OÑATIKO JAIXAK 2022

### EGITARAUAREN AZALA AUKERATZEKO LEHIAKETA

Oñatiko Udalak 2022ko jaietako egitarauaren azala aukeratzeko deialdia egiten du, ondorengo oinarrien arabera.

#### OINARRIAK

- 1.- Lehiaketa honetan 18 urtetik gorako edozeinek har dezake parte.
  - 2.- Egile bakoitzak gehienez bi lan aurkeztu ahal izango ditu.
  - 3.- Formatua: Digitala soilik. Mezu elektronikoa bat bidaliko da kartela PNG, JPG edo PDF formatuan (Originala formatu ez-digitalean eginez gero, egilearen esku geratuko da, eta egileak haren irudiak bidali beharko ditu). Kolorea eta teknika: librea.
  - 4.- Lanak jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izan beharko dira.
  - 5.- Ezinbestekoa izango da euskarazkoa izatea eta gutxienez testu hau agertzea: Oñatiko Jaixak 2022.
  - 6.- Aurkezteko epea: 2022eko **ekainaren 23tik uztailaren 15era**.
- Bidalketarako helbide elektronikoa:
- [kultura.idazkaritza@onati.eus](mailto:kultura.idazkaritza@onati.eus)
  - Mezuan honako hau agertu beharko da: Kartel lehiaketa 2022.
  - Izen abizenak eta telefonoa.
- 7.- Kartel irabazlea hautatzea: internet bidezko bozketa librea, **uztailaren 18tik 25era**. Esteka, sare sozialetan eta web orrian zintzilikatuko da.
  - 8.- Irabazlearen saria 500 euro izango da.
  - 9.- Sarituko den lana Oñatiko Udalaren esku geldituko da. Halaber, inprimatzeko, argitaratzeko, ezagutarazteko eta gainontzeko eskubide guztiak Oñatiko Udalak berak izango ditu.
  - 10.- Edozein erreklamazio, zalantza edo apelazio Oñatiko Udaleko Kultura Batzordera bideratu beharko dira.
  - 11.- Lehiaketara aurkezteko, goitik behera onartu beharko dira oinarriak.

**12.-**Aurkeztutako lan orok behar bezala kudeatuta izan behar ditu kartelean agertzen diren argazki, ilustrazio edo baliabide grafikoengatiko eskubideak, baldin eta irudi-bankuetatik badatoz edo aurkeztutako lanaren egileak egin ez baditu. Oñatiko Udalak uko egiten die aurkeztutako lanen edukiak hirugarrenei buruz sor ditzakeen erreklamazioetatik eratorritako erantzukizunei.

**13.-**Aurkeztutako lanak jendaurrean erakutsi ahal izango dira.

**14.-** Kultur batzodeak honako kasu hauetan utzi ditzake lanak lehiaketatik kanpo:

- Autorea nor den zalantzan dagoenean.
- Aurkezturiko lanak pertsonen duintasunaren aurka doazenean.
- Beste obra batzuen irudia inoiz erabili gabekoa izango da.

Aurkezturiko lanetan maila nahikorik ez badago, saririk ez emateko aukera izango du.

\*Ez dira onartuko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 1/2022 Legean xedatutakoa betetzen ez duten lanak, zehazki, sexuaren araberako rolak eta estereotipoak desagerrarazteari buruzko artikulua (3.7. art.) eta komunikazio ez-sexistari buruzkoa (18.4. art.).

\*Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 1/2022 Legearen 3.9. artikulua arabera, epaimahaiari ordezkari izan dadin, lau kideetik gorako organoetan sexu bakoitzeko kideek % 40ko ordezkari izan beharko dute. Hiru kideetik beherako kasuetan, bi sexuek ordezkari izan beharko dute.

\*Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoari jarraikiz, jakinarazten dizugu deialdian jasotako datuak Oñatiko Udalaren ardurapeko izaera pertsonaleko fitxategi batean jasoko direla eta soilik eskari hau kudeatzeko erabiliko direla.